


- “Hi, Miel Mari! zein izan zitekeen arestian hor goiko otadi horretan ikusi dudan txoria? Ederki asko ikusi diat. Ttikie huen, txantxangorriaren tamañekoa eta ikaragarri politta, buru beltzekoa, eta lotsagabea. Ote baten puntatik behin eta berriz pui-txak-txak, pui-txak-txak egiten zian”.
- ”Motel, deskribapen borobille egin didak, pitxartxarra behar zian!”

Pitxartxar burubeltza, esan eta izan

Migel Mari Elosegí*



FITXA TEKNIKOA

Pitxartxar burubeltza

Espezia: *Saxicola torquata*
Familia: muszikapidoak
Ordena: paseriformeak
Klasea: hegaztiak

“Pitxartxar” delako izena ez da besterik gabe jarri den horietakoa. Katalanek esate baterako, txori hau bera *bitxac* izenez ezagutzen dute eta ingelesek, berriz, *chat* deitzen diote. Horiek guztiak, noski, txoriak egiten duen klaskada imitatuz sortutako izenak ditugu, hau da, onomatopediakoak dira, eta euskaraz, badugu era honetako izen mordoska ederra. Hegaztien artean, adibidez, pirripioa, txirriskilla, txepetxa, txiioa,

garraztarroa edota kukua bera ere aipa genitzake.

Aipatutako kantu xeblearen egi-lea pitxartxar burubeltza (*Saxicola torquata*) dugu, 13 cm-ko luzera eta 15 gramoko pisua duen hegazti in-tsektujalea. Arrak buru eta bizkar-ralde beltza, ipurtxuntzur zuria, bular arre-gorriska eta bi aldeetan orbain zuriz apaindutako lepoa ditu. Emeak, berriz, antzeko kolore-banaketa duen arren, kolore motelagoak ditu. Gazteak ere emearen antzekoak dira, baina lumaje pintarratuaz jantzita egoten dira. Lumaje polit honi esker erraz ezagutzeko moduko txoria da eta, nahastekotan, zihurrenik beste pitxartxar-espezie batekin nahasiko genuke, pitxartxar nabarrarekin (*Saxicola rubetra*), alegia. Azken honek, burubeltzak ez bezala, bekain zuria du eta baita buztanean orbain zuriak ere, besteak beste. Hala ere, lehena ugaria dugun bitartean, bigarrena askoz ere eskasagoa da eta Aralar, Lokiz, Urbasa, Arabako Lautadatan eta Lapurdiko mendebaldean besterik ez da kumatzen.

Janzkera berezia edukitzeaz gain, pitxartxar burubeltzak identifikatzen lagun gaitzaketen jokoera bereziak ere baditu. Argindarreko kableetan, larre-arteko hesietan, zuhaisken puntatan eta antzeko leku deigarrietan pausatzeko ohitura du. Horregatik, eta gizakiarekiko beldur gutxi erakutsi eta eremu zabaletan ibiltzeagatik, ez da zaila gertatzen ederki ikustea. Batetik bestera hegan doanean, bestalde, lurretik oso gertu joaten da eta hegaldi motzak egin ohi ditu. Eza-

“Pitxartxar” delako izena, txoriak egiten duen kantua (“Pii-txak-txak” imitatuz sorturiko da. Argazkian arra.

M.M. Elosegí





M.M. Elozegi



Ez da zaila izaten txori hau ikustea. Gizakiarekiko beldur gutxi erakusten du, leku irekitan ibiltzen da eta gainera, pausaleku deigarrietan jartzeko ohitura du.

gutzeke egokia da, azkenik, etengabe buztan eta hegalak astintzeko ohitura eta, nola ez, hasieran aipatu dugun “pii-txar-txar” delako dei famatua.

Habitatari dagokionez eta jadanik aipatu den bezala, zabalune eta leku irekiak atsegin zaizkio; otadi, txilar-di eta zuhaiskadun larretan, sastrakadun alorretan eta baso hertzetan bizi da, itsas mailatik 1.400 metrotik gorako altueraraino.

Martxo bukaera aldera eta udaberriko grinak bultzatuta, arra, lumaje disdiratsuenaz jantzirik, 1-2 hektarea inguruko lurraldearen mugak txistu eta mintzuruka defendatzen hasten da. Horretarako hegan has daiteke hegal-kolpe bakoitzarekin batera txiio eginez edota pausaleku deigarriren batetik kantatu. Baina arra poligamoa denez eta ugaltze-sasoian batean zehar emerekin pareka daitekeenez, eme adina lurralde izango ditu eta, noski, lanez gainezka egoten da zainketa-lan guztiak burutzen. Horretxegatik, hauxe izaten da pitxartxarra ikusteko garai aproposena, erabat leku nabarmenetan kantari aritzen delako. Tarteka, pausalekuetako batean dotore asko jarrita ikusiko dugu, emea erakartzeko txirularen doinu-kantu berezia lau haizetara zabalduz. Emea hurbiltzen denean eztei-jolasean hasten dira eta arra emearen atzetik hegan ziztu bizian ibiltzen da.

Apiriletik aurrera eta inork ez aurkitzeko moduko zoko edo landare-tarteren batean ongi ezkutututa, emeak ontzi-itxurako habia eraiki-

tzen du. Batzuetan, sastraka baten erdian ezartzen du eta adarren artetik tunel bat irekitzen du inork ikusteke bertaraino ailegatzeko. Goroldio, sustraitxo, lumatxa eta belarrez gain, ilea erabiltzen du barrualdea goxatzeko. Lan hauek amaitzerakoan, pintta arre-gorritaz apainduriko 4-6 arrautz urdin jartzen ditu. 13-15 eguneko txitaketa ere emeari dagokio eta arra, berriz, lurraldea defendatu eta ugalkidearentzat (edota ugalkideentzat) bazka ekartzeaz arduratzen da.

Kumeak jaiotzen direnetik habia uzten duten arteko bi asteak gurasoentzat atsedean izpirik gabekoak izaten dira, txito aseeginak bazkatzeko etengabe ehizean aritu behar izaten dutelako. Ahalegin itzel

ten da, zeozer somatu ahala, goitik behera jaitsi eta mokoaz harrapatzeko. Neguan, hala ere, elikagai hauek behar bezain ugari izaten ez direla eta, fruitu eta haziak ustiatzen ditu elikagai gisara. Arrazoi berberetatik, bestalde, Europako erdialdean kumatutako espeziekide askok hegoaldera egiten du neguan. Gure pitxartxarrak, aldiz, sedentarioak direla dirudi eta, beraz, urte osoa ematen dute inguruotan.

Hegazti hau Europako erdialde eta hegoaldean, Afrikako iparmendebal-

M.M. Elozegi



Emeak lumajea apalagoa du. Txitaketaren ardura berea denez, ez zaio kolore bizirik komeni.

horretaz jabetzeko, hona hemen datu aski esanguratsua: egun bakar batean gurasoek 300 joan-etorritik gora egiten dituzte habira bazka eramateko! Gainera, lehenengo txitaldia goiz hasten dutenez, normalean bigarrena ere aurrera ateratzen dute eta batzuetan hirugarrena ere bai. Kontuak atera, beraz, ugaltze-sasoia bukatzen denerako zer nolako joan-etorri pila egin behar izan duten pitxartxarrek.

Miko eta hanka finek erakusten dutenez, pitxartxar burubeltza zomorrotaz elikatzen da. Zelatari fina, intsektuak, armiarmak, arrak, barraskiloak, eta abarren zain ego-

dean eta Asiako eremu handitan bizi da. Iberiar Penintsulan, iparraldean eta mendebaldean da ugarien eta Euskal Herrian habiagile arrunta da. Itsas ertzetik mendiko belardietara heltzen da eta Ebro aldean, goi-mendian eta basoz guztiz estalitako eskualdetan izan ezik, ia nonahi erraz aurkitzeko moduko espeziea da. Ez zaizue beraz zailegi gertatuko hegazti honekin topo egitea; adi egon, beraz: “pii-txar-txar” esaten badu, jakin ezazue halaxe dela alajaina.



* **Biologoa**